

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**12/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 23koa. Adieraztea iraungi dela Mañuetako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketaren espedientea, Las Eras kaleko hiri lurzoruari buruzkoa, eta agintzea jarduerak artxibatzeko**

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2017ko otsailaren 16an sartu zen idazki baten bitartez, Mañuetako Udalak arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea bidali zuen, Las Eras kaleko hiri lurzoruari buruzkoa, behin betiko onets zedin.

Bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi zen ez zela bidali administrazio espedientea, zeina osatzen baitute hasierako dokumentuen eta Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren Batzordeak emaniko txostenaren arteko dokumentu guztiek; baita ingurumen ebaluazio estrategikoari buruzko izapidetze lanak ere.

Horregatik, 2017ko martxoaren 1eko idazki baten bidez, Mañuetako Udalarari eskatu zitzaion zuzen zitzala aurkitutako hutsak. Hari erantzunez, udalak idazki bat bidali zuen martxoaren 10ean, eta hari erantsita administrazio espedientea. Horiek horrela, 2017ko martxoaren 28an, beste jakinarazpen bat bidali zitzaion Mañuetako Udalarari azalduz dokumentazio horrek ez zuela betetzen eskatutakoa, agiri teknikoa ez baitzitzaion egokitzen martxoaren 1eko idazkian jasoriko eskakizunei. Udalarari bidaliriko bi eskakizunetan, jasota geratzen zen, bidezko ondorioetarako, ezen eskatutako dokumentazioa igortzen ez zen bitartean ez zela hasiko ebazpena emateko epearen kontaketa.

Bigarrena. Zuhurtziazko denbora bat igaro eta udalak inolako dokumentaziorik bidali ez zuenez gero, bat etorritz Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 95 artikuluan xedatutakoarekin, Mañuetako Udalarari ohartarazi zitzaion idazkiaren jakinarazpena jaso eta hiru hilabete igarota espedientea osatzen ez bazuen, haren iraungitzea adieraziko zela eta artxibatzeko aginduko zela. Jakinarazpen hori 2019ko otsailaren 18an egin zen.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Prozedura iraungitzea prozedura amaitzeko moduetako bat da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 95.1 artikulua arautzen duenez, eta hiru betekizun betetzea eskatzen du:

Lehenik, prozedura eten izana interesdunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, betiere izapide hori egitea funtsezkoa denean.

Bigarrenik, interesdunari espresuki ohartarazi behar zaio funtsezko izapide hori ez egiteak prozeduraren iraungitzea ekarriko duela.

Hirugarrenik, hiru hilabete igaro izana interesdunari gertaera horren berri eman zaionetik.

Bigarrena. Espediente honetan aurreko oinarrian adierazitako betekizun guztiak betetzen dira eta bi urte baino gehiago igaro eta eskatutakoa bete ez denez gero, egokia da espedientea iraungi dela adieraztea eta hura artxibatzeko agintzea.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Adieraztea iraungi dela Mañuetako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketaren espedientea, Las Eras kaleko hiri lurzoruari buruzkoa, eta agintzea jarduerak artxibatzeko.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 23a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*